

GRADUATU SOZIALEI ELKARRIZKETA

Graduatu Sozialen doako justizia zerbitzua eskaintzen duten Unai eta Andrearekin izan gara, Elkargoak Euskaraz proiektuari buruzko iritzia jasotzeko.

“Positibotzat jotzen dugu ekimen hau hizkuntza herritarren artean zabaltzeko; izan ere, elkargoek harreman sare zabala dute barrukoekin (elkargokideak, langileak...), baita kanpokoekin ere (herritarrak...)”

Urtero helburu zehatzak ezartzen eta betetzen saiatzen gara, nahiz eta batzuetan zaila izan:

Gehitu dutenez, zerbitzu honetan euskararen erabilera baxua da erabiltzaile gehienak atzeritarrak direlako. “Hala ere, beti saiatzen gara gure aletxoak ematen, eta euskaraz hasten gara, gutxienez entzun dezaten.”

Eskerrik asko Graduatu Sozialei elkarrizketagatik eta noski proiektuan parte hartzen duten elkargo guztiei, euskara sustatzeagatik!



Bizkaiko Colegio Oficial
Graduatu Sozialen Graduados Sociales
Elkargoa Bizkaia

ENTREVISTA A GRADUADOS/AS SOCIALES

Hemos estado con Unai y Andrea, que ofrecen el servicio gratuito de justicia del Colegio de Graduados Sociales, para recabar su opinión sobre el proyecto Elkargoak Euskaraz.

“Valoramos positivamente esta iniciativa para difundir la lengua entre la ciudadanía, ya que los colegios tienen una amplia red de relaciones a nivel interno (personas colegiadas, personal...) y también externo (ciudadanía...)”

Cada año intentamos establecer objetivos concretos y cumplirlos, aunque a veces es difícil.

Añaden que el uso del euskera es bajo en este servicio porque la mayor parte de las personas usuarias son extranjeras. “Sin embargo, siempre intentamos aportar nuestro granito de arena y empezamos en euskera para que al menos lo escuchen.”

¡Gracias a los/as Graduados/as Sociales por la entrevista y por supuesto a todos los colegios que participan en el proyecto, por fomentar el euskera!

BOISEKO 2025eko JAIALDIA

Estatu Batuetako Boisen “Jaialdi” izeneko jai erraldoia 5 urterik behinospatzen da. Bertara, antolatzaileek Euskal Herriko eta diasporako euskal dantzari, musikari, bertsolari eta artistak gonbidatzen dituzte. 2025eko uztailaren 28tik abuztuaren 8ra ospatuko da.

Boisekoa Euskal Herritik kanpo egiten den euskal kultur jaialdirik handiena da: sei egunetan 50.000 lagun baino gehiago biltzen ditu eta erakusketez, musika, kirola, dantza eta gastronomiaz goza daiteke.



<https://www.jaialdi.com/>

“JAIALDI” DE BOISE DE 2025

En Boise (Estados Unidos) se celebra cada 5 años una gran fiesta llamada Jaialdi. Allí los organizadores invitan a dantzaris, músicos, bertsolaris y artistas vascos de Euskal Herria y de la diáspora. Se celebrará del 28 de julio al 8 de agosto de 2025.

El de Boise es el mayor festival cultural vasco que se celebra fuera de Euskal Herria: reúne a más de 50.000 personas durante seis días y se puede disfrutar de exposiciones, música, deporte, danza y gastronomía.

PuntuEus: 10 URTETAN 15.000 DOMEINU

Jadanik 10 urte bete dira 2014an .eus abian jarri zenetik. Hamarkada ez da alferrik pasatu eta aurten, 10. urteurrena ospatzeko ekitaldi bat egin dute. Adierazi dutenez 15.000 .eus domeinu daude Euskal Herrian, zeinetatik %70 euskaraz dauden, hau da, Interneten dauden Euskal Herriko webguneen %15.

PuntuEus: 15.000 DOMINIOSEN 10 AÑOS

Ya se han cumplido 10 años de la puesta en marcha de .eus en 2014. La década no ha pasado en balde y este año se ha celebrado un acto conmemorativo del 10º aniversario. Hay 15.000 dominios .eus en Euskal Herria, y entre ellos el 70% están en euskera, lo que supone el 15% de los sitios web de Euskal Herria que están en Internet.